

Gipuzkoako Ahalduen Nagusia,
Gainerako agintariak eta erakundeen ordezkariak,
Euskaltzainok,
Jose Luis, Karmele eta Josuren etxekook,
Jaun-andreok,

Ohi legez, Euskaltzaindiak, urtarrileko Osoko bilkurarekin batera, Ageriko bilkura egiten du aurreko urtean hildako euskaltzainak gogorarazteko eta jendaurrean haien gomuta azpimarratzeko.

Oraingoan hiru izango ditugu gogoan, Jose Luis Alvarez Enparantza *Txillardegik*, Karmele Esnal eta Josu Arenaza, joan den urtean gure artetik joanak.

Hiru horiek dira, ezbairik gabe, garai eta belaunaldi baten partaide eta lekuko, euskara eta euskal kulturak aldeztuak baino, gutxietsiak eta beheratuak zirenean.

Bazterketa horiei aurre egin zieten, nork bere esparruan, euskalgintza eta naziogintzatik abiatuta.

Euskara bera, euskalgintza eta euskaralaritza, herrigintzarekin batera, sutso landu zituen *Txillardegik* bizitzan zehar, gutariko askoren maisua izan zela, hurbileko zein urruneko. Euskaltzaindian bertan izan genuen aukera gure miresmena eta goresmena erakusteko, Euskal Herriko Unibertsitatearekin batera argitaraturiko omenaldi liburuan zein Literatura Batzordeak berari buruz egindako jardunaldian, gerora *Euskera* agerkarian argitaratu zena. Horrexegatik Jean Louis Davant euskaltzain

osoak gogoratuko digu haren herrigintza, jarraian Jose Austin Arrietak ere haren sorkuntza emaitzak aztertuko dituela.

Euskarazko Irakaskuntza eta pedagogia lehenetsi zituen Karmele Esnal andereño zenak, Miren Azkarate euskaltzain osoak gogoratuko digunez.

Azkenean, Xabier Kintana euskaltzainak azalduko dizkigu Josu Arenazaren bizitzaren eta ekimenaren zertzeladak, bizkaitar abertzale eta euskaltzale porrokatuaren nondik norakoak zehaztuz.

Hitzak izango ditugu eta hitzekin batera ere musika, halakoa baita, zalantzarik gabe, haien oroitzak berriro ere gureganatzeko modurik gozoena.

Musika eta hitz horien bitartez gure artera ekarriko ditugu haiek eta haien egitateak. Horretarako zuen laguntza paregabea du gaur euskararen akademiak.

Eskerrak beraz, zuei, eskerrak Jose Luis, Karmele eta Josuren etxekoei, eskerrak, orobat, txostengileei, musikariari eta abeslariari eta eskerrak Gipuzkoako Foru Aldundiari eta Ahaldun nagusiari, Euskararen Akademiarekin bat egitearren.

Andres Urrutia,
Euskaltzainburua